



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko uztailaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko uztailaren 5ean, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : MATEO Jean François.

Deialdiaren eguna : 2023ko ekainaren 30a

Afitxatze eguna : 2023ko ekainaren 30a

4. ERABAKIA: AUTOKIDETZA GUNEAREN ANTOLATZEKO LANEN EGITEKO MERKATUAREN ESLEIPENA (1.1 nomenklatura)

Auzapezak adierazi du, prozedura egokituko deialdia antolatu duela RD 918 errepidean autokidetza gunearen egiteko lanak eginen dituzten enpresen hautatzeko.

Eskaintzak aztertu-eta, honako esleipena proposatu du:

- Carrières et Travaux de Navarre (CTN) enpresa, 70 998,50 € ZK-ko zenbatekoarekin.

Herri Biltzarrari proposatu dio horretaz erabakitzea, eta mahai gainean ezarri ditu eskuratu diren eskaintza guztiak eta horien analisi txostena.

Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari Carrières et Travaux de Navarre enpresarekin 70 998.50 € ZK-ko kontratua izenpetzeko.

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, horri loturiko erabaki oro hartzeko eta agiri oro izenpetzeko, besteak beste deialdiaren moldatzea, baldin eta zenbateko orokorra ekintza horretarako onartu diren kredituen azpitik egoten badira.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko uztailaren 5ean

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/07/13an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/07/13an.